



M^a CONCEPCION UGALDE IZETA Begarako Udaleko Idazkariak

EGIAZTATZEN DU Alkate jaunak 2021eko urtarrilaren 21ean ondorengo dekretua eman duela:

“Covid19aren larrialdi-egoerak irauten duen bitartean atari-bilerak egiteko eskaera-kopurua handituko dela aurreikusita (atarietan momentu honetan ezin dira sei lagunetik gora elkartu eta dirudienez laster laukoa izango da muga), udalak eskaera hauei irteera azkarra emateko prozedura adostu du.

Ondorengo eraikinak utziko dira, bertan adierazitako baldintzetan:

- **Irizar jauregiko *Euskaldunberri* aretoa:**
 - o Gehieneko edukiera: 21 lagun.
 - o Bilerak egin daitezke astelehenetik ostiralera bitartean, 18:00-20:00 bitartean.
 - o Lokaleko giltzen bila aurrez Udal Liburutegira joan beharko da.
- **UNEDa:**
 - o Gehieneko edukiera: 30 lagun.
 - o Bilerak egin daitezke asteartetik ostiralera, 17:00 – 20:00 bitartean.
 - o Zein lokal erabiliko den Idazkaritzako langileek adieraziko diete.
- **Zabalotegiko Txiki Txokoa:**
 - o Gehieneko edukiera: 14 lagun gela bakoitzeko.
 - o Bilerak egin daitezke ostiraletan, 16:00 – 20:00 bitartean.
 - o Atea irekitzera udaltzainak joango dira eta telefonoz deitu beharko zaie 943 77 91 06 telefonora.
- **Martokoko gizarte etxea:**
 - o Gehieneko edukiera: 12 lagun gela bakoitzeko.
 - o Bilerak egin daitezke astelehenetik ostiralera, 18:00 – 20:00 bitartean.
 - o Atea irekitzera udaltzainak joango dira eta telefonoz deitu beharko zaie 943 77 91 06 telefonora.
- **Agorrosineko aretoan:**
 - o Gehieneko edukiera: 30 eta 6
 - o Bilerak egin daitezke Agorrosineko irekiera-ordutegian, lokala libre badago.
 - o Atezaintzatik egingo dira ate-irekiera eta beste kontrol lanak: 943 77 70 95.
- **Labegaraieta kiroldegiko aretoa:**
 - o Gehieneko edukiera: 12 lagun
 - o Bilerak egin daitezke Labegaraietako irekiera-ordutegian, lokala libre badago.
 - o Labegaraietako tabernatik egingo dira ate-irekiera eta beste kontrol lanak: 943 76 56 41.



Horrenbestez, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: COVID 19a dela-eta osasun-pandemia honek irauten duen bitartean goian jasotako lokaletan atari-bilerak egiteko baimena ematea, honako baldintzei eta prozedurari jarraituz:

- Eskiera idatziz eta gutxienez bilera-data baino hamabost (15) egun lehenago egingo da, eta bertan harremanetarako eta jakinarazpen-eraginetarako telefonoa eta helbide elektronikoa adieraziko dira.
- Udal teknikaria, telefonoz edo emailaz, harremanetan jarriko da eskatzailearekin eguna libre dagoen adierazteko edo, okupatuta badago, beste egun posible batzuk aztertzeko.
- Bilera hasi baino lehen eskuak eta erabiliko diren azalera desinfektatuko dituzte, bertan aurkituko duten materialarekin (udalak bertan utziko ditu esprai desinfektatzaileak eta paperezko zapiak horretarako).
- Bilerak irauten duen bitartean leihoak irekita egongo dira aireztapena ziurtatzeko.
- Taldekide guztiak eserita egongo dira eta inguruko kideekin gutxienez 1,5 metroko distantzia mantenduko dute.
- Bileran kide guztiak momentu oro musukoarekin egongo dira.
- Bilera bukatutakoan erabili diren azalera desinfektatuko dituzte bertako materialarekin (udalak bertan utziko ditu esprai desinfektatzailea eta paperezko zapiak horretarako).
- Udalak ez du inolako tasarik kobratuko.
- Baimenaren komunikazioa e-mailaz bidaliko zaio eskaera aurkeztu duenari.

Eskaera aurkeztu duenak BERAk izango du ardura eta erantzukizuna honako alderdi hauek betetzeari buruz: lokalaren erabilera zuzena izatea eta jarritako baldintzak betearaztea, desinfekzio-lanak egin eta eginaraztea, eta lokala itxita gelditzen dela ziurtatzea (behar denean udaleko arduradunari deitu eta hura etorri arte bertan egon beharko da).

BIGARRENA: ESKUA aplikazioan espedientea osatuta dagoenean (disponibilitatea ziurtatuta, lekua gordeta etab.) aretoko arduradunak eskaera egin duen ordezkariari baimenaren komunikazioa egingo dio helbide elektronikoz (ahal dela) –edo, bestela, eskatzaileak Udaltzaingora bertaratuta jaso beharko du–; baldintzak eta ardurak gogoraraziko zaizkio, horretarako dekretu honetan jasotako baldintzak adieraziz edo beste berri batzuk ere Osasun Saitetik jasoko balira.

HIRUGARRENA: Erabakian jasotako atari-bilerak egiteko udalak onartu dituen baldintzen eta prozeduraren berri ematea web-orrian eta udal teknikariei jakinaraztea.”

Eta horrela jasota gera dadin, ematen du egiaztagiri hau, Bergaran, 2021eko urtarrilaren 21ean.

